



**LEGAZPIKO
UDALA**



FOROAREN ALTA-AGENDA 21eko LANTALDEA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2006/05/18	Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi	Tokia: Legazpiko udaletxea
-----------------------------	--	--------------------------------------

Zer da mugikortasun iraunkorra? Leku batetik bestera joateko modu bat da baina kaleko eta errepideko bizilagun guztiak errespetatuz. Errespetuzko mugikortasun hori eman dadin, ezinbestekoa da bestelako mugikortasun kutsagarrien eta energia-kostu handikoen gaitetik mugikortasun iraunkorra gailentzea. Behar beharrezkoa da hiriak planifikatzea, lehenbizi oinezkoen eta txirrindularien –eta, ondoren, garraio publikoa erabiltzen dutenen- erosotasuna eta segurtasuna bermatua egon dadin.

Ole Thorson

Taldeak egin zuen lehenengo bileran Legazpiko herrian eta auzoetan oinez eta bizikletaz leku batetik bestera joateko dauden “puntu kritikoak” edo zailtasunak aurkitu genituen. Bigarren saio honetan udalerriko hirigunean oinezkoak eta bizikletak segurtasunez ibiltzeko egin daitekeen ibilbide-sare bat definitu dugu elkarrekin. Gainera, oinezkoentzako maila desberdinak zehazten saiatu gara.

Emaitza? Hona hemen!



Gaur elkartu garenak...

Guztira 22 pertsona. Talde plurala, ilusioz beterik eta lan egiteko gogoarekin! Hauek gara...

Izena	Ordezkaritza:	Izena	Ordezkaritza:
• Milagros Noguera	Legazpiarra	• Juan Altzelai	Harri Aurdin
• Begoña Lekue	Iratzarri elkarte	• Jose Luis Cid Delgado	Legazpiko Udaleko zinegotzia
• Maite Lázaro	APA- Olazabal institutua	• Juan Miguel Urrutia	Legazpiarra
• Montse Vallejo	APA- Olazabal institutua	• Jose Luis Zabaleta	Legazpiko Udaleko zinegotzia
• Juncal Fernandez	Legazpiarra	• Vicente Garmendia	Legazpiko Udaleko zinegotzia
• Sol Aróstegui	Legazpiarra	• Koldobike Olabide	Mirandaola Servicios Medioambientales
• Agustina Romaratezabala	Eiluz	• Alonso Frances Alustiza	Legazpiko Udaleko aparejadorea
• Lurdes Etxaniz	Eiluz	• Juan Ramon Larrañaga	Legazpiko Alkatea
• Josetxo Dorronsoro	Haztegi	• Inma Hernandez	Udaletxeko Agenda 21eko teknikaria
• Ana Moreno	Eiluz	• Zorione Aierbe	Prometea, SC
• Kizkitza Oria	ILINTI elkarte	• Iciar Montejo	Prometea, SC

Guztioi, eskerrik asko!!!

Eguna: 2006/05/18	Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi	Tokia: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

¡Goazen lanera! Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak zehaztuz

Hasi aurretik eta azkeneko bileran egindako lanari helduz, taldeko kide batek Legazpiko hirigunean "puntu kritiko" berri bat sartzea proposatu du. Mirandaolara doan bideko espaloia erdi-erdian dagoen tentsio altuko zutoinaz ari da. Gainerako kideak ados azaldu dira eta lanerako prestatu dugun plano orokorrean sartu dugu puntu hori.

Gure gaurko lanari hasiera emateko Legazpin oinez eta bizikletaz egiten ditugun ibilbide nagusiak zehaztu ditugu (gaur, bereziki, hirigunea aztertu dugu). Lana errazteko, taldeak lehenbizi Legazpiko leku eta gune nagusienak zehaztea proposatu du, leku horiek elkarri lotu beharra dagoela uste baitu. Horrela, -●- ikurra erabili dugu aipatu leku horiek identifikatzeko: udaletxea, ikastetxeak, osasun zentroa eta hirugarren adinekoen egoitza, kiroldegia, tren-geltokia, kanposantua edo industrialdea.

Ondoren, oinez eta bizikletaz egiteko egungo sarea zehaztu dugu (___ ikurra erabili dugu planoan) eta etorkizunean ibilbide hori osatuko duen sarea egin dugu (___ ikurra erabili dugu erantsitako planoan).

Dena den, taldea lanean ari dela galderak sortu dira, hala nola, **zertarako hau guztia?, zein helbururekin? zer lortu nahi dugu?** Eta taldeak erantzun bat eta azalpen bat eskatu du. Hau da azalpen hori

• **Eta guzti hau, zertarako?**

Legazpin oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko ibilbide-sare bat identifikatzeak ondoko gauzak egitea ahalbidetuko digu:



- **Legazpiko oinezkoen ibilbideak eta guneak hiru mailatan** zehaztu ahal izango dugu:
 - Trafiko mugatuko oinezkoentzako gunea zehaztuko dugu.
 - Oinezkoek eta bestelako garraiobideek elkarrekin erabil dezaketen gunea zehaztuko dugu (horretarako, ezinbestekoa da espaloia eta galtzada maila berdinean egotea)
 - Oinezkoek eta motordun ibilgailuek erabiliko duten gune desberdinak zehaztuko ditugu. Oinezkoek espaloiak erabiliko dituzte eta motordun ibilgailuek galtzada; kasu horretan espaloiak egokitu beharko dira (irisgarritasuna sustatzeko, zabalera egokia,...)
- **Legazpin bizikletaz egiteko guneak hiru mailatan** zehaztu ahal izango dugu:
 - Bizikletak bakarrik ibiltzeko gunea zehaztuko dugu: bide-gorria.
 - Oinezkoek eta bestelako garraiobideek elkarrekin erabil dezaketen gunea zehaztuko dugu (horretarako, ezinbestekoa da espaloia eta galtzada maila berdinean egotea)
 - Bizikletek eta ibilgailuek erabiliko duten galtzada zehaztuko dugu.

Guzti horrek udalerriko hiri-egituran izango du eragina; eta, beraz, hemengo emaitza Legazpiko Arau Subsidiarioak lantzen ari den taldeari bidaliko zaio, haiek aztertu eta berriro taldeari itzul diezaioten.




Modu berean, ibilbide desberdinak dagoeneko zehaztu ditugun puntu kritikoekin alderatuko ditugu eta, horri esker, Legazpiko hirigunean egin daitezkeen hirigintza arloko hobekuntzak ezagut ditzakegu.

Azalpen horri esker, lanaren testuingurua ulertu dugu eta haren garrantziaz jabetu gara.

Irudia: oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko taldeak zehaztu duen sarea.



Donde:

	Principales rutas peatonales y ciclables actuales.
	Posible ruta peatonal y ciclable a futuro.
	Principales lugares públicos de referencia en Legazpi.



ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21
Agenda 21 de Legazpi

Fecha: 18/05/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	-----------------------------------

Eta sarea zehaztu ondoren, ... ezinbesteko eztabaida

Oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko sarea zehaztu ondoren, **taldeak aurrera egin du**. Horrela, oinezkoen sarea hartu dugu oinarri eta zehaztu ditugun **oinezkoen ibilbideak lehen aipatutako hiru mailatan kokatu ditugu**: trafiko mugatuko oinezkoentzako gunea, oinezkoek eta bestelako garraiobideek elkarrekin erabil dezaketen gunea eta, azkenik, oinezkoek eta motordun ibilgailuek erabiliko duten gune desberdinak.

Hala ere, oinezkoentzat zehaztu diren ibilbideetatik zeintzuk jar daitezkeen oinezkoentzako bakarrik (trafiko mugatuarekin) galdetzerakoan, eztabaida ireki da eta horrelako gaiak azaldu dira:

- **Hausnarketa, Legazpin oinezkoentzako gunek ezartzearen gainean.**

Taldeko eztabaidatik sortu diren hainbat hausnarketa:

- Legazpiko hirigunean oinezkoak bakarrik ibiltzeko gune bat zehazten badugu, ezin da erabat oinezkoentzat izan, **motordun ibilgailuek sarrera mugatua izatea** onartu beharko da (zamalanak egiteko ordutegia)
- Gainera, oinezkoentzako gunek ezarri gero, aparkalekuak galtzen dira eta, beraz, **ibilgailuak aparkatzeko arazoari beste irtenbide bat eman** beharko zaio.
- Zergatik ezin dugu Legazpiko hirigunea merkataritza-gune handi bat gisa imajinatu? Gune horretan oinezkoak ibiliko dira eta merkataritza-gune horren eta aparkatzeko gunearen artean irisgarritasuna bultzatu beharko da.
- Gai horretan, Legazpik **erronka handia du: nolako herria nahi dugu?, oinezkoentzako herri bat edo autoentzako bat?** Azken finean, erabakiak hartzerakoan, guztiok dugu buruan ibilgailu pribatua.
- Eta beraz, garrantzitsua da ondoko gaien gainean hausnartzea:
 - **Zertarako ezarri oinezkoentzako bakarrik gunek?**
 - Eta, **non jarriko dira gune horiek?** Ibilbide isolatuak egingo ditugu edo elkarrekin lotuta dauden ibilbideak?

Eta hausnarketa horrekin bukatu da gaurko saioa

Baina alde egin aurretik "etxeko lanak" eman ditugu. Aurreko hausnarketa (benetan ezinbestekoa) begi aurretik kendu gabe, **taldeko kide bakoitza zehaztu dugun oinezkoentzako sarean aipatu hiru mailak zehazten ahaleginduko da**. Horrela, kide bakoitzak oinezkoentzako bakarrik izan daitezkeen gunek, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako izan daitezkeenak eta oinezkoek eta motordun ibilgailuek erabiliko duten gune desberdinak identifikatuko ditu.

Eta aurrerago joan nahi duenak gauza bera egin dezake bizikletentzako sarearekin. Modu horretan, lanean jarraitzeko materiala izango dugu. Legazpiko Agenda 21eko foroaren **hurrengo bilera datorren 2006ko ekainaren 8an, osteguna, izango da arratsaldeko 18:30an, udaletxeko Batzar Aretoan**. Bitartean, ondo izan!

Eskerrik asko zuen laguntzagatik!!! Atsegina izan da!